

MERKATARITZA- OSTALARITZA

BL-EGIZU	ESPARRUari ekarpena
EKARPENA	Merkatari euskaldunen sarea osatzea.
Esparru honetako zazpigarren neurrian jasota dagoela irizten da.	

BILDU	2. HELBURUko 6. ekintzari ekarpena
EKARPENA	Lehen hitza hitzarmena abiatu eta indartu
Planean jasota dagoela uste da	
AZALPENA	<p>Udalak urteak daramatza merkatariekin elkarlanean euskararen erabilera sustatzeari begirako jarduerak martxan jartzen. Bide horretan sakondu nahian, berriki, <i>Euskararen Laguna/Comercio amigo del euskera</i> ekimena jarri dugu martxan; ekimen honen bidez zubi bat eraiki nahi dugu euskarazko zerbitzua eskaini dezakeen merkatariairen eta zerbitzua euskaraz jaso nahi duen bezeroaren artean; ekimenaren barruan aholkuak, jarraibideak eta materiala eskaintzen zaie merkatariei, hain zuzen ere, bezeroen aurrean jarrera proaktiboa izan dezaten euskararen alde eta beraz, lehen hitza euskaraz egin dezaten.</p> <p>Hau guztia, dagoeneko, <i>Euskararen Laguna</i> hitzarmenean jasota dago; hitzarmena izenpetzen duten saltokiek konpromisoa hartzen dute bezeroei lehen hitza euskaraz egiteko. Udalaren asmoa da, <i>Euskararen Laguna/Comercio amigo del euskera</i> ekimenarekin jarraitzea, saltoki gehiagok eskaini dezan euskarazko zerbitzua.</p>